

# KATEA EZ DA ETEN

JOXE MARI ARANALDE

**E**Z dakit nik Erreteriak lutorik jantzi zuen ala ez joan zen abenduan. Motiborik bazukeen Xenpelarren herriak. Ez zuen nolanhiko galera izan 1987 urtearen hondarrean. Bertako seme argi baten argia itzali zitzaion betirako. Koldo Mitxelena Elisalt jauna bere hilerrian du geroztik Erreteriak. Ez dago bide luzea beraren jaiotzetik hilobi-etxera. Ez da tarte haundirik bi egoitza horien artean. Baina zer alde! Bazen lutoz jazteko haina.

Baina jantzi beltzez bakarrik gogoratzeak gure erreteriar prestua, ez dugu aski. Soinekoz aldatzea ez den zerbait egin behar da haren gogoangarritan. Eta lehen—lehenik, ezagutu eta ezagutarazi egin behar dugula esango nuke, ikasbide dakigun eta maisu. Beraren bitzta dakiguke argi lehenik; eta beraren jakintza hurrenik. Badugu nahiz bataren eta nahiz bestearen beharra.

Haur erdi-elbarri bat dugu Koldo bere bizialdiaren haseratan. Bere kideko guztiak osasun eta askatasun pozetan biltzan bitartean, hura etxe txokoan dago. Irakurketa du bere entretenimendu bakarra. Ez dauka seniderik ere jolaserako. Gurasoak dauka bakarrik, eta haiek helduxegiak eta lanpetuegiak daude beren semetxoarekin jolas egiteko. Telebisioak eta hauek, berriz, geroagoko kontuak ditugu. Irakurri egiten du bakarrik gure haurrak. Irakurri emanahala guztia, dela tebeo, dela aldizkari, dela egunkari, dela ez dakit nik zer. Eskerrak hori bederen egin dezakeen. Eta eskerrak, esango genuke guk ia-ia, hori besterik egin ez dezakeen, gero izan dugun liburu-gizona izan ahal izateko, hori bait zen batez ere behar zuena. Baina moztasun horrexetan hasten du bere bizialdia gure erreteriarrek.

Horrelaxe doakio bere haurtzaroa. Gaztealdia, berriz, ikasten eta lanean. Ikasle luzitua bada ere, ez daiteke ikasten bakarrik ari. Eskuarte urria da etxe haretan, eta irabazira atera beharra dauka. Eta aldi berean, gazte-gorabeheratan sartzen da. Gazte-ekintzatan dabil, dela langile arazo, dela herri arazo. Eta herriaren horrek eramango du azkenean, sekulan inork joan nahiko ez genukeen lekura.

1936 urtea, muga-urte bat da Mitxelenarentzat, beste euskaldun askorentzat bezalaxe. Ez da urte bat gehiago beren bizitzetan. Aberriaren aldeko guda ikaragarri bati ekin behar diote. Eta gure erreteriar gazteak ez du atzera agingo. «Ni ez naiz gerraren zale» zerasakeen berak ere beste bere herritar harek bezalaxe. Baina gerra egin beste erreteriorik ez du izango. Armak hartuta mendira joko du bere aberkideekin batera.

Zertako esango dugu galdu egin zuela gerra? Eta zertan esango, galtzailearen gurutzea eraman beharrean gertatu zela? Hori gauza jakina da edozein guda-galtzailerentzat. Eta zer esanik ez hura bezala aurrean ibili zen batentzat. Espetxeak eta beste izan zuen bere irabazi guztia. Bizia bera ere jokatua zuen, eta galdua. Dena jokatu zuen eta dena galdu. Hala ere, probidentziako eskuren bati esker, bizia salbatu ahal izan zuen. Eskerrak!

Bukatua zen gerra legez. Egitez ez ordea euskaldunen-  
tzat, eta Koldorentzat. Esperantza berriak jaio ziren abertzale-  
leentzat, eta isilpeko guda bati ekin zioten berriro. Azpizana  
egin behar zitzaion etsaiari, eta lan horietan sartu zen gure  
gudari ohia. Ez luzarorako. Hartu zuten berriro eta jakineko  
lekuan sartu zuten. Lehendik ezagutzen zituen itzala eta es-  
petxea berriz ere.

Hor amaitzen da Koldo Mitxelenarentzat epe bat. Arme-  
kin ateratzen da herria defendatzera, eta armak kentzen diz-  
kiote, eta eskuak lotzen. Saria jakina dauka: Espetxea. Hori  
du une jakin batetako hautu jakin baten ordaina.

Espetxea. Espetxealdi luzea. Eta ez nolanhiko espetxee-  
tan. Frankorenetan! Galduko ote dugu betirako gure gudaria?  
Desarmatua ote dute guztiz? Bizirik ez diote kendu, eta Mi-  
txelenak badu oraindik zeri heldu, eta zeren bidez bere herria  
serbitu. Badu gizakiak besteinork ez duen arma bat, armarik  
bizkorrena, eta bizia kendu ezean kentzen ez zaiona. Eta hori  
berekin darama Mitxelenak. Burua berekin darama, eta ho-  
rretaz baliatuko da, armaz defendatu nahi izan eta ezin izan  
duen Herriaren alde lan agiteko. Bide bat itxi diote, baina ide-  
kiko du beste bat, bere helburura iristeko.

Haurretan osasunik ezak baztertu zuen lagunartetik, eta  
besteek ez bezala bere haurtzaroa igarotzera behartu. Orain  
askatasunik ezak behartuko du, akaso bestela ekingo ez zion  
zerbaiti ekitera. Haurtzaroko trebaketa hura ez zaio gaizki eto-  
rriko oraingo lanerako. Eta ikasteari lotuko da Mitxelena bere  
espetxeako urtetan zehar. Hor aurkituko du bere bidea, eta hor  
hasiko herri honekiko serbitzu paregabea. Horri eskerrak  
izango da guztiok miretsi eta eskertu dugun hiskuntzalari  
prestua, bai etxe koentzat eta bai kanpokoentzat. Sagardote-  
giak eskolatu omen zuen beste hura, eta kartzelak egingo du  
gure errederiarra.

Mitxelenak badu, noski, hainbat eta hainbat alderdi mires-  
garri; baina kartzelako hauxe baino miresgarriariorik! Gauza  
jakina da espetxeak nornahi irentsi dezakeela. Arnaspidea  
kentzen diola gunortasunari. Hori da hangotarrek diotena.  
Gure Mitxelena ez zuen irentsi. Bilatu zuen arnaspidea. Ez  
zuen ito kartzelak. Jakin zuen haizeari eta argiari bere baitara  
tiratzen. Eta erakutsia utzi du, nahi duenak ikasi, herri hone-  
tan edo mundu zabalean, ez dela hori eta horrenbestez men-  
peratzen pertsona. Baduela ahalmenik etsai haundi eta asko-  
ren artetik garaile ateratzeko. Lekuko da historia guztia, guk  
askotan ahaztua eduki arren. Horri eskerrak ateratzen da gi-  
zon gure errederiarra espetxetik. Ez da, nonbait, uste bezain  
errez gizakiari bideak ixten. Ez dago horrelako satorrik zehar-  
bideak bilatzeko. Zer jokabidea, eta zer ikasbidea! gu bezala-  
ko Herri indarrez ahul batentzat.

Eta badator noizpat gure kartzela-eskolarua. Betitik lan-  
dua zuen etxe ko hizkuntza hura, landuagoa eta ikasiagoa da-  
kar. Gai dugu gizona euskararan lemazaintzan hasteko. Bada-  
go beharra. Harek haur eta gazte zela ezagutu zituen  
maisua, herbestean sakabanaturik dabiltza. Eta zertxobait  
gogoturik eta zaharkiturik. Ez da harriztekoa. Gerraondoko  
gazteria, berriz, gogoz eta suz haien kideko bada ere, buruz  
eta ideaz aldatuxea dator. Eten baten arriskua nornahik suma  
dezake. Zubigile bat ez litzateke gaizki etorriko. Eta zein ego-  
kiagorik gure errederiarra baino? Zaharrei ez diezaieke mu-  
zin egin, bereak bait ditu. Berriak ez ditzake bazter, biziaren  
legea bait da. Gainera, kidetasunik baduke hauekin, bai adi-  
nez eta bai gogoz. Non aurki, beraz, topaleku hoberik erre-  
deriarraren izpiritu zabalean eta argian baino bi belaunaldien-  
dientzat?

Beti da, zahar-gazteen arteko tirabirarena, arazo delika-  
tua; baina gurean bihalakoz da horrela, belaunaldien berezko  
konponezinari, gerraren etena erantsi behar bait zaio. Arratz  
zaio gerraurrekoa gerraondokoari. Begiz ere ez dute ia-ia el-  
kar ezagutzen bi jenerazio horiek. Nola har dezateke elkar bi-  
hotzez? Bada esku on baten beharra, bi hegi horien artean zu-  
bi on bat eraiki nahi bada.

EGAN aldizkarian hasiko du Koldo Mitxelenak, ohartuki  
edo oharkabe, bere zeregin hori. Hor zabalduko dizkie ateak  
batzuei eta besteei. Hor bilduko ditu denen ideak eta joerak.  
Hor agertuko zaigu denen sustatzaile. Eta heredu agertuko  
zaigu.

Heredu baten eske bizia hasia zegoen. Euskaldun-berrien  
burrunda nabaria zen. Heredu bat eskatzen zuten. Berazko  
euskaldun guztion euskarak ez zitzatekeen ikas. Bat eskatzen  
zuten, berarekin auskaldunen artean sartu ahal izateko. Eta  
zein hartu? Hor dago kokka. Edo kokka. Eta ez nolanhikoa.  
Nola elkar hainbat aburu, eta batez ere sendimendu?

Bai. Ongi beharra genuen gizona zetorkigun espetxe-  
ko unibertsitaria. Berezko argitasunez eta eskolarenez, bazeki-  
keen bakoitzak zein alderdiri eutsi nahi ziezaiokkeen, eta ba-  
koitzak zenbatsu arrazoi zekarkeen. Ohartu zen zer ez zite-  
keen gal, eta zer irabazi beharra geneukan. Nolanahiko  
batasuna eta inolako batasunik eza berdin zirela ikusi zuen.  
Eta bataren aldera eta bestearen aldera jotzen zutenen artean  
ibili behar izan zuan. Eta euskaldungoak onartu zuen Mitxele-  
nak markatzen zuen heredua.

Behin batean idatzi nuen, «probidentziatzako» gizona izan  
zela gure euskararentzat Koldo Mitxelena. Norbaitzuek ge-  
hiegiakeriatzat jo zuten nere ateraldi hura. Nik ez derizkiot ha-  
la. Gaur ere gauza bera uste dut, eta esaten dut: Mitxelena  
probidentziatzako gizona izan dugula.

Eta orain esaten dut gainera, zor zitzaion eskerrik ez zi-  
tzaiola eman. Ez da behar bezala eskertua izan Mitxelenaren  
gizatasun handia. Ez du inoren borondate onezko ahalegi-  
nik gutxietsi. Batzuen eta besteen ekarria onartu du, eta jaso.  
Eta denentzat zordun agertu da bere bidea markatzerakoan.  
Hitz batean, esan dezadan, hitzak eta meritua berarenak bait  
dira, Mitxelenari esker «katea ez da eten».